BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# BILBOBUSEK GARRAIO OFIZIALA IZATEKO ESKAINTZA EGIN DIO OLENTZERORI, BILBOKO NESKATO-MUTIKOEN ARTEAN ILUSIOA BANA DEZAN

- **Bilboko Udalak Bilbobuserako Gabonetako kanpaina aurkeztu du gaur, tartean Olentzerori bilbobus- zerbitzua dohainik eskaintzea.**
- **Gainera, eskaintza hori Bilboko eta Bizkaiko guztiei egiten die, horrela, bilbobusetan 2020. urte osoan dohainik bidaiatzeko 50 bonoko zozketan parte hartuko dute, web-orri honetan**: **www.bilbobusolentzero.eus.**
- **Flota handi bat, neurri askotako autobusak eta espazio zabala opariak garraiatzeko, Bilboko kale eta lasterbide guztien ezagutza eta profesional diskretuak; ez dago bilbobus baino garraiobide hoberik Gabonetako opariak banatzeko.**

*(Bilbon, 2019ko abenduaren 2an).* Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak **Bilbobuserako 2019ko Gabonetako kanpaina** aurkeztu du gaur.

Udal garraioak, zerbitzu publikoa denez gero, proposamen garrantzitsua egin dio Olentzerori berari: ikazkinaren esku jarri du Bilbobuseko flota handia, garraio ofiziala izan dadin eta opariak arinago eta errazago bana ditzan, Bilboko neskato-mutiko guztien etxeetara garaiz iristeko.

Horrela iragarri du gaur goizean ***Alfonso Gil*** alkateorde eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko zinegotziak. *"Egun hauetan Olentzerok lan handia dauka eta horregatik, aurkitu eta laguntza eskaini gura diogu. Zalantza barik, Bilbok garraio publiko bikaina dauka, urian zehar lagundu, jarraibideak eman eta urian handik hona eraman zaitzaketen profesional handiekin. Gabonetan umeei ilusioa eramateko eginkizuna erraztu nahi diogu, eta jakina, non hobeto, Bilbobusen baino*".

**Bilboko Udalak kanpaina bat jarri du abian Olentzero aurkitzeko eta doako zerbitzua eskaintzeko gabonetarako**. Jakinik Olentzerorentzat zein estresagarria den hain gau laburrean auzo eta etxe guztietara iristea opariekin, Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak bilbobusen zerbitzuak eskainiko dizkio pertsonaia ospetsuari, dohainik.

Zalantza barik, Bilbobus garraiobiderik onena da Olentzerorentzat eta Mari Domingirentzat, Lamiarentzat, Basajaunentzat eta Galtzagorrientzat; izan ere, flota handia dauka, neurri guztietako autobusak eta espazio zabala opariak garraiatzeko; Bilboko bide eta lasterbide guztien ezagutza, langile diskretuak eta autobus isilak, auzoetan sartzen direnean inor ez esnatzeko. Horregatik guztiagatik, Gabonetan opariak banatzeko ez dago garraiobide hoberik.

Olentzeroren Gabonetako garraiobide ofiziala izateaz gain, Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak eskaintza hau bilbobus 2020. urteko garraiobidea izan nahi duten Bilboko eta Bizkaiko bizilagun guztiei egiten die.

Zalantza barik, bada, eta Bilbobus bilbotarren bizimoduan txertatuta dagoen erakusgarri dira urteko 25 milioi erabilerak; horregatik, 2020. urte osoan bilbobusetan dohainik ibiltzeko 50 bonu zozkatuko dira. Parte hartzeko, web-orri honetara sartu behar da: www.bilbobusolentzero.eus.

“*Bilbotar guztien ondoan egon nahi dugu bizi dituzten une magiko eta ilusiozko guztietan. Gabonetan eta urteko gainerako egunetan. Baita Bizkaiko herrietatik erosketak egitera Bilbora datozenen ondoan ere. Horregatik, 2020. urte osoan Bilbobusen dohainik bidaiatzeko 50 bono zozkatuko ditugu. Hortaz, bai Olentzerok, gure eskaintza onartzen badu, bai beste herritar batzuk ere, doako bonua eskuratu ahal izango dute*” gehitu du Alfonso Gilek.

Bilbobuseko autobusetan Olentzero aurkitzen laguntzeko iragarkiak jarriko dituzte eta horrela, Udalaren nahia beteko da, alegia, bilbotarrentzat Gabonak magikoagoak izan daitezen laguntzea Olentzerori.

**AUTOBUSEN FLOTA HANDIA**

Bilbobusek 141 autobus ditu. Azken 4 urteetan, Bilbobusek 37 unitate berri eskuratu ditu, 11,5 milioi euroko inbertsioa eginda; urtea amaitu aurretik, beste 17 unitate gehituko dira.

2019. urtea amaitzen denean, flotaren % 20 berria izango da.

# BILBOBUS SE OFRECE COMO TRANSPORTE OFICIAL DE OLENTZERO PARA REPARTIR ILUSIÓN A LOS NIÑOS Y NIÑAS DE BILBAO ESTA NAVIDAD

- **El Ayuntamiento de Bilbao ha presentado hoy su campaña de Navidad para Bilbobus, que incluye la oferta gratuita de sus servicios a Olentzero.**
- **Además, hace extensible esta oferta a todas las personas de Bilbao y de Bizkaia para que consigan uno de los 50 bonos gratuitos para viajar en Bilbobus en 2020, participando en un sorteo en la web www.bilbobusolentzero.eus.**
- **Su amplia flota de autobuses de todos los tamaños para poder llevar los paquetes y regalos, su conocimiento de todas las rutas y atajos del callejero bilbaino, y la discreción del personal, hace de Bilbobus el medio ideal para el reparto de regalos esta Navidad.**

(*Bilbao, 2 de diciembre de 2019*). El Área de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao ha presentado hoy la **campaña de Navidad para Bilbobus 2019**.

El transporte municipal, fiel a su vocación de servicio público**,** ha trasladado una propuesta importante al mismísimo Olentzero: pone a disposición del entrañable carbonero su amplia flota de Bilbobus como transporte oficial para facilitar y agilizar el reparto de los regalos, y llegar así  a tiempo a todas las casas de los niños y niñas de Bilbao.

Así lo ha anunciado esta mañana el Teniente Alcalde y Concejal de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao, ***Alfonso Gil***. "*Son fechas con mucho trabajo para Olentzero y queremos encontrar a Olentzero para ofrecerle nuestra ayuda. Sin lugar a dudas, Bilbao dispone de un transporte público excelente, con grandes profesionales que podrán ayudarle, indicarle y trasladarle por nuestra ciudad. Queremos facilitarle en su cometido de llevar ilusión a los niños y niñas en Navidad, y qué mejor que hacerlo en Bilbobus".*

El Consistorio bilbaino **ha puesto en marcha una campaña para localizar a Olentzero y ofrecerle su servicio gratuito esta Navidad**. Consciente del estrés que supone para el popular personaje cargar con todos los regalos y llegar a todas las casas en una noche, el Área de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao ha decidido ofrecerle el servicio gratuito de Bilbobus.

Bilbobus es sin lugar a dudas el mejor transporte para Olentzero y Mari Domingi, Lamia, Basajaun y los Galtzagorris, ya que cuenta con una amplia flota de autobuses de todos los tamaños para poder llevar los paquetes y regalos, conoce todas las rutas y atajos del callejero bilbaíno, cuenta con la discreción del personal, y los vehículos tienen motores sigilosos para no despertar a nadie al entrar en los barrios. Todo esto hace de Bilbobus el medio ideal para el reparto de regalos esta Navidad.

Pero además de ser el Transporte Oficial de Olentzero estas Navidades, el Área de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao, hace extensible esta oferta a todas las personas de Bilbao y de Bizkaia que estén interesadas en convertir Bilbobus en su Transporte Oficial en 2020. Sin duda ya lo es, los 25 millones de usos anuales demuestra que BIlbobus es parte de la vida los bilbaínos y bilbaínas, por ello, esta Navidad, quieren sortear 50 bonos para viajar de forma gratuita en Bilbobus durante 2020. Para participar deberán entrar en la web www.bilbobusolentzero.eus.

"*Queremos acompañar a los bilbaínos y bilbaínas en todos los momentos mágicos e ilusionantes que viven. Tanto en Navidad como en el resto del año. También a aquellos que desde otros lugares de Bizkaia se acercan a esta ciudad para comprar. Por ello, ofrecemos 50 bonos para viajar gratis en Bilbobus durante todo 2020. Así, tanto Olentzero si acepta nuestro ofrecimiento, como otros ciudadanos podrán participar para conseguir su bono gratuito*", ha añadido Alfonso Gil.

Los vehículos de Bilbobus **lucirán anuncios para tratar de encontrar a Olentzero** y poder cumplir así con el deseo del Ayuntamiento de ayudarle a hacer más mágica la Navidad de los y las bilbaínas.

## AMPLIA FLOTA DE AUTOBUSES

Bilbobus cuenta con una flota compuesta por 141 unidades. En concreto, en los últimos 4 años, Bilbobus ha incorporado 37 nuevas unidades a su flota, con una inversión de 11,5 millones de €, a los que habrá que sumar otras 17 nuevas unidades antes de final de año.

Cuando termine este 2019 un 20% de la flota habrá sido renovada.